



munduan sartzea erdietsi ondoren mundu horretan ezin etsi duen emakume gazte eder bat du pertsonaia nagusi; *Haizeaz bestaldetik* (1979) basamortuan giro-tutako nobela lirikoak da, egilearen ustez bere nobelarik «sakonea eta sinbolistena»; *Exkixu*-k (1988) ETAko kide baten motibazioak, bizipenak, kezak, beldurak eta pozak erakusten ditu; *Putzu*-k (1999) karlista batenak; eta *Labartzari agur*-ek (2005) ezker abertzaleko militante batek espetxean 17 urte igaro ostean kalera irten eta kanpoko errealtatearekin egiten duen talka du kontagai. Horiez gain, 1984an *Kosmodromo* argitaratu zuen, 1957 eta 1969 artean hainbat aldirizkaritan argitaratutako lau ipuin batuz.

Leturiaren egunkari ezkutua-ren adinako indar erreferentzialik izatera iritsi gabe, *Peru Leartzako*, *Elsa Scheelen* eta *Haizeaz bestaldetik* nobela komentatuak eta oso aintzat hartuak izan ziren. Azken hiru nobelak argitaratu zirenerako, aldiz, euskal literatura oso aurreratu eta garatua zegoen, eta beste erreferentzia nagusi batzuen itzalpean geratu ziren Txillardegiren lanak. Hala ere, aldeko komentarioak jaso zituzten hainbat kritikari, idazle eta literaturzalerengandik.

↓ Bibliografia

NOBELAK

- *Leturiaren egunkari ezkutua* (Euskaltzaindia, 1957)
- *Peru Leartzako* (Itxaropena, 1957)
- *Elsa Scheelen* (Lur, 1969)
- *Haizeaz bestaldetik* (egile editore, 1979)
- *Exkixu* (Elkar, 1988)
- *Putzu* (Elkar, 1999)
- *Labartzari agur* (2005)

NARRAZIOAK

- *Kosmodromo* (Haranburu, 1984)

SAIAKERAK

- *Huntaz eta hartaz* (Goiztiri, 1957)
- *Sustrai bila. Zenbait euskal koropilo* (Irakur, 1970)
- *Hizkuntza eta pentsakera* (Gero-Mensajero, 1972)
- *Euskara batua zertan den* (Jakin, 1974)
- *Oinarri bila* (egilea editore, 1977)
- *Fonologiaren matematikuntza* (UEU, 1978)
- *Euskal Herriatik erdal herrietara* (egile editore, 1978)
- *Euskal Gramatika* (Ediciones Vascas, 1978)
- *Euskal dialektologia* (egile editore, 1983)
- *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa* (UEU, 1984)
- *Euskal azentuaz* (Elkar, 1984)
- *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981* (Elkar, 1984)
- *Gertakarien lekuko* (Haranburu, 1985)
- *Antigua 1900* (Kutxa, 1991)
- *Euskal Herria helburu* (Txalaparta, 1994)
- *Soziolinguistika matematikoa* (UEU, 1994, Xabier Isasirekin elkarlanean)
- *Lingua navarrorum* (Orain, 1996)
- *Euskararen aldeko borrokan* (Elkar, 2004)
- *Santa Klara, gure uharte ezezaguna* (Kutxa, 2004)
- *Horretaz* (Elkar, 2007)

TXILLARDEGIRI BURUZ

- **Ibon Sarasola:** *Txillardegiri eta Saizarbitoriaren nobelagintza* (Kriselu, 1975)
- **Joxean Agirre:** *Hitza hitz Txillardegirekin solasean* (Elkar, 1996)
- **Askoren artean:** *Txillardegiri lagun-giroan* (UEU, 2000)
- **Askoren artean:** *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia. Homenaje a Txillardegiri* (Euskaltzaindia, 2005)
- **Markos Zapiain:** *Txillardegiri eta ziminoak* (Susa, 2007)
- **Sebastian Garcia Trujillo:** *J.L. Alvarez Enparantza (Txillardegiri). Existenzialismoa eta Jainkoa: itzalak baino argiak nabarmenagoak* (Desclee, 2007)

Agur gordin bat

Markos Zapiain
Idazlea eta irakaslea

Heriotza izan da Txillardegiren kezka nagusietako bat, idazten hasi zenez geroztik *Horretaz* azken liburua arte. Biziki hunkitu zuen, gaztetan, Marilyn Monroeren suizidioak; baita, txikitari, asto baten heriotzak ere, Igeldoko Muitza baserrikoa. Aitak kontatzen zion eta sekula ez zitzaion ahaztuko. Muitzatik itsasorantz labar labain more-beltz bat dago, harkaitzeko txirrista bat. Baserriaren bazuten asto bat; zahartu eta itsutu egin zen. Ez zekiten nola akabatu. Azkenik, begiak zapi batez estali eta labar hartatik behera amildu zuten.

Hainbat arlotan egiazta daiten Txillardegiren aitzindaritzak. Narratibara mugatzearen: Eli Laztanguren jakinarazi digu gaur egungo genetistak liluraturik dituela Txillardegik 1957an *Orangutanen ugartea* ipuinean iradoki zuen aukera batek: milioika urtez, gizakiak eta ziminoak elkarrekin nahasturik jo zuten larra, eta nahasketa horren ondorio ginateke edo txinpantzeak edo bestela gu gizakiok; euskal eleberrin modernoa abiarazi zuen (Leturia eta Peru arazoz betetako protagonista aldakor eta gogoetariak dira); emakumea zen Elsa Scheelen, eta gainera suizida; *Haizeaz bestaldetik* eko esperimendu sinboliko poetiko ausart haiek...

Txillardegik baino lehen inork

ez dio lotu Euskal Herriaren aldeko borroka animalienaganako maitasunari. Gizakiaren animaliatasun nabarmenak durduzaz eta dardaraz jarri izan ditu sistema filosofiko klasikoak, Jainkoaren antzirudiko ikusarazi nahi izan baitute kosta ahala kosta huananoa, izpiritu aratz. Txillardegirentzat, mendebaldeko pentsamendu nagusian animaliak betetzen duen baztertoa bat dator indarrean dauden egitura politikoetan estatuturik gabeko herri txikiak betetzen dutenarekin: «arazoz» dira, «konpondu beharrekoak», edo bestela zuzenean desagerrarazi beharrekoak, ziminoaren ispi-lu kezkarria bezalaxe. Txillardegik, ostera, baztertoiko ispi-lu argitzen eta duintzen ahalegindu da, bihotzak bultzatuta.

Aitzindari izan dugu, halaber, heriotzari aurre egiteko erari dagokionez. Txillardegik bat egin du Spinozarekin eta Einsteinekkin Jainko pertsonal epaile transzendentea ukatzeko orduan. Izatekotan, Jainkoa Natura bera litzateke, dagoen guztia.

Txillardegik baino lehen inork ez dio lotu Euskal Herriaren aldeko borroka animalienaganako maitasunari

Guk etxeak eta tunelak helburu batekin egiten ditugunez, suposatuta izan dugu Unibertsoak ere baduela Egile bat eta helbururen batekin egingo zuela Bere Obra. Txillardegiren ustez, giza proiektio hutsa duzu xedetasun hori, Unibertsoa ez baitoa inora. Honelaxe formulatu du azuia *Horretaz* bere azken liburuko azken galderan: «Hegalak dituztelako egiten dute hegan txoriek? Ala hegan egiten dutelako dituzte hegalak?». Dударik ez Txillardegirentzat: hegalak dituztelako egiten dute hegan.

Unibertsoak ez du berezko zentzurik, gure bizitzak eta heriotzak ez duten bezala. Txillardegik garbi ukatu du Adimen Onberaren batek dagoena taxutu duelako ustea, gizakia xede. «Antropokeria» hitza asmatu zuen jarrerara horri kontra egiteko. Antropokeria gai da Jainkoaren trebetasun zintzoa gorapatzeko, gizakiok sudurdun sortu izanagatik, gainean baturaurrekoak kokatu ahal dituzte. Txillardegiren esanetan, «txiripa hutsez heldu gara geure honetara». Unibertsoa ez zen gizakiarentzat egin.

Horrela, Txillardegik heriotzaren oinazea bere gordinen adierazten ahalegindu da eleberritan zein saiakeretan, gizakiok geure buruari asmatzen dizkion kontsolagarriak erantzirik. Hauxe da, beraz, unerik desegokiena Txillardegiri traizio eginik heriotzaren ikaragarria baretzen ahalegintzeko.

Haiengatik gaude hemen

Xabier Mendiguren
Elizegi

Idazlea eta editorea

Atzo eguerdi aldean, Jose Luisen heriotzaren berria zabaltzen hasi zenean, halaxe idatzi zuen sarean Arana Goiriren arima bailitzan agertzen den adar-jotzaile batek: «Txillardegiri zeruko atetik sartu barri da, 'Gora Euskadi askatuta' garrasi egin. Pentsetan dot ondo pasako dogula elkarrengaz». Txantxak txantxa, mezu horrek pentsarazi zidan Sabino eta Txillardegik elkarren segidan jartzeko modukoak direla, bata bestearen ukazio ez baizik eta osagarri, eta bi-akiak Euskal Herriak XX. mendearen izan dituen gizonik inportanteenak, agian.

Herri honen nortasuna gainbe-

hera zihoala altxatu zen Sabino Arana, karlisten semea, Espainiaren utzartetik askatzeko dei egina. Ideiaren pitzaile, ideologia baten zabaltzaile, mugimendu baten antolatzaile gisa nabarmendu zen, baina horien garapenean ez zuen parte hartzerik izan, gazterik hil zelako. Akats asko aurpegi-ratu izan zaizkio Abandoko propagandista hari, baina hura izan ez balitz beharbada hau idazten eta irakurtzen gabiltzanon kezka bakarra izango zen Mariano Raxoiren hurrengo mozketak edo Rubalcaba-Chacon lehia.

Frankismoaren zulo beltzean, aliatuek euskaldunoi bizkarra eman ondoren jaiki zen Alvarez Enparantza, beste gazte bipil batzuekin batera, herri honek bizi nahi zuela aldarrikatzeko. Euskarak galzori bueltarik gabekoan zi-

rudienean, euskara ikasi zuen, horretarako baldintzarik txarretan, eta herri honen funtsa hizkuntzan zetzala irakatsi zigan, aurreko abertzaletasunaren oinarri arrazial eta historizistak baztertu. Euskararekiko atxikimendu teoriko eta praktikoko hori zor diogu beste ezer baino lehen, gure literatura berrietz eta hizkuntzaren batasunerako oinarriak jarri, baita aberriak eta hizkuntzak elkarren behar gorria dutela behin eta berriz erreplikatu izana ere. Politikan ere, talde harixe zor diogu, mende erdi baten ondoren itzali den erakundea sortu izana, Txillardegiri bera laster kanpoan gelditu bazen ere. Akatsak akats, haiengatik izan ez balitz, oso litekeena da gaur berripaper hau ez existitzea, eta gu denok orain erdaraz lasai arraio aritzea.